

Galdera

"Azala aldatzeak sugea suge egin du" esaldiaren analisi sintaktikoa egin nahi dugu. Begiratzen ibili gara, eta "suge" predikatu osagarria izango litzateke eta "sugea" osagarri zuzena?

Bai

1/ **Bihurtu/bilakatu** aditzak, lehen erabileran iragangaitzak eta argumentu bakarrekoak badira ere, predikatu bat eskatzen dute:

Ardoa bihurtu zen*

Ardoa ur bihurtu zen

Ardoa dugu perpausaren subjektu, eta **ur** hitza predikatu osagarria aditz semikopulatibo honekin. Halakoetan, ohikoena da predikatua mugatzailerik gabe ematea.

Aditz horiek "arazle" gisa ere erabil daitezke –iragankor gisa, alegia–:

Jesusek ardoa ur bihurtu zuen ≈ Jesusek ardoa ur bihurrarazi zuen

Hemen **Jesusek** dugu perpausaren subjektu; **ardoa**, osagarri zuzena; eta **ur**, osagarri zuzenaren predikatu osagarria.

Zalantzari dagokion esaldian, **egin** aditza erabili da goikoen parera:

sugea suge egin da (erabilera iragangaitza)

azala aldatzeak sugea suge egin du (erabilera iragankorra)

Gehiago jakin gura izanez gero:

<https://egeo.ehu.eus/kapitulu/ikuspegia/7> Patxi Goenaga eta Beatriz Fernandez

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1765&task=gramatika&lang=eu&kodea=24 Euskararen Gramatika